

## ITSAS-GIZONEN KANTA

**AMA BIRJIÑA IZIAR-KOARI.**

1

Ave maris stella  
Agur, itsasoko izarra.

Andutz-mendian dizdiz egiten  
Dezun eguzki argiya;  
Zeru ta lurrik apaindurikan  
Dauzkatzun lore churiya;  
Pekatariyen laguntzallea,  
Graziyen itur garbiya,  
Ugarotarren<sup>2</sup> zuzendariya,  
Mindunentzako poztiya....

Itsas-gizonak, dabillean  
Itsas-aserre beltzean,  
Zéñ biyotzetik, deitzen dizun  
¡Ama maitea! nekean;  
Zure laguntzak zabaldutzen du  
Poza bere biyotzean;  
Argitasuna lausoturikan  
Daukan adimen tristeau.

Zu zera bere miñ guztiyentzat  
Sendagarirrik piñena;  
Berak dituen laño beltzentzat  
Argitasunik onena:  
Zuk gozatutzen dezu, naiz izan  
Tristetasunik miñena  
Naiz izan berak duen larriya  
Izan liteken geiyena.

Zuk, Euskalduna, zure mantuan  
Gordetzen dezu maitaro;  
Bere bizitza, zoriondutzen  
Dezu, Mariya, gozoro;  
Zuk uzten dezu, len illun zegoen  
Adimentua dizdiro;  
Len zikindurik zegoen biyotza  
Elurra beziñ garbiro.

¡Zér argitasun miresgarriya  
Zabaldutzen dan Andutztik!  
Itsastarra du berak salbatzen  
Gau-itzal beltzen artetik;  
Berak darama portura, gozo  
Bide zuzena markarik;  
Berak Irayera, bela churiyak  
Artekaizeaz <sup>3</sup> puzturik.

¡Zéñ ederra dan zure laguntza,  
Jaunaren Ama maitea!  
¡Nola biyotza duen lagatzen  
Gozotasunez betea!  
Bera badator, laster dijoa  
Gugandik iges nekea,  
Nola dijoan, egun sentiyan  
Gaueko laño tristeau.

(1) 1884-an Iziar-en lenbiziko euskara-saria izandu duen neuritzaldia,  
(2) Ugarotarra=Navegante.—(3) Artekaizea=Brisa.

Ez da zuk kentzen ez dezun miñik  
 Zuk ez dakartzun gozorik;  
 Zuk lagundu-ta, biyotz oztua  
     Gelditutzen da suturik,  
 Griñ okerrakin nastutakoa,  
     Bildots bat beziñ otsanik,  
 Jausbetiturik<sup>1</sup> arkitzen dan a,  
     Burniya beziñ aldunik.<sup>2</sup>

¿Nola zuregan ez gera, bada,  
     Joango baturik, Mariya,  
 Gurteskatzera<sup>3</sup> chit bear degun  
     Zerako laguntz eztia?...  
 Jakiñik, Ama, zuk dakizula  
     Paketzen ekaitz sutiya,  
 Zugana gatoz billatutzera  
     Gure penetan pozkaiya.

Ekaitz gogorra datorrenean  
     Ondatu nairik ontziyak,  
 Andutz aldera ¡bai! biurtuko  
     Dirade gure begiyak:  
 Andik, ederrik, zabaldutzen dan  
     Egun sentizko argiyak,  
 Kenduko ditu gure gañetik  
     Illuntzen duten odeiyak.

¡O zenbat aldiz, Ama, salbatzen  
     Dezun itsastar gaiñoa,  
 Zuregan berak biurtutzean  
     Maitetasunez, gogoa!  
 ¿Nola guk, bada, gaur ez biurtu  
     Zuregan biyotz osoa,  
 Zeru ta lurren Erregiñ eder,  
     Gozo guztiyen gozoa?

¿Nola gintezke, gabiltzanean  
     Itsasoagaz gudatzen,<sup>4</sup>  
 Geldi nagusi, ez bazenduke  
     Zuk maitakiro laguntzen?...  
 ¿Nola, gau beltzak dituenean  
     Illuntasunak zabaltzen,  
 Itsas-gañean ibill gintezke,  
     Ez bagaitzu zuzentzen?...

Alper-alperrik itsaso beltzak,  
     Aserre biziz beterik,  
 Ontzi gureak zeatu naiyan,  
     Orro-egingo du gogorrik.  
 Zu bazerade gure laguntzat,  
     Iñon ez degu bildurrik,  
 Dakigulako zuk dituzula  
     Bagak utzitzen umillik

¡O zenbat, ustez urikalduak<sup>5</sup>  
     Salbatzen diran zugatik,  
 Biyotz-biyotzez, irazekirik,  
     Otoitz<sup>6</sup> samur bat egiñik!  
 ¡Otoitz donea!<sup>7</sup> Lore likurta<sup>8</sup>  
     Dijoan eran goiturik,  
 Irichitzen du barkaziyoa,  
     Jaunaren Ama mugirik.

Gauza guztiyak, Ama Birjiña,  
     Dijoaz beren amaira;<sup>9</sup>  
 Baso tartean jayo t'azi dan  
     Basaunzachoa mendira;  
 Mur- mur egiñaz errekauchoa  
     Pizkor ta pizkor ibaira;  
 Eta lurretik, otoitza beti  
     Zerura, bere kabira.

(1) Jausbetitu =Desfallecer.—(2) Alduna=Potente —(3) Gurteskatu=Suplicar.—(4) Gudatu=Pelear.—(5) Urikaldu=Naufragar.—(6) Otoitza=Oracion.—(7) Donea=Santo. (8) Lore likurta=Aroma de las flores.—(9) Amaiya=Fin,

Otoitzareritzat ez da lañorik,  
 Ez odoi pilla trinkorik;  
 Ez aize gogor borchazkorikan<sup>1</sup>  
 Ez eta ekaitz aldunik:  
 Uso bat nola dijoan egaan,  
 Gora ta gora lurretik,  
 Ala dijoa Zeru goiyera  
 Laño, t' odeiyak pasarik.

Ala dijoa; t' andik ekartzen  
 Du zoriona lurrera,  
 Poz-atsegīña, gozotasuna,  
 Gizonen biyotz tristera;  
 Elkar dezala, bada, gaur ere  
 Graziya biyotz gurera,  
 Joan gaitezen egun batean  
 Jaunaren egoitz<sup>2</sup> goiyera.

KARMELO      ECHEGARAY-KOAK.

## COLEGIO DE ESCUELAS PÍAS DE TOLOSA.

Tenemos gran satisfaccion en trasladar á nuestras columnas un bien escrito suelto que el *Diario de Avisos de Zaragoza* dedica á los progresos del Colegio de Escuelas Pías de Tolosa. Dice así:

«Si la prensa periódica realiza uno de sus mejores fines alentando todo esfuerzo generoso en favor de nuestra cultura y por el progreso de la enseñanza, grato ha de sernos en la presente ocasion dejar consignados los rápidos y brillantes adelantos que en breve tiempo, desde 1878 á la fecha, ha conseguido el Colegio de Escuelas Pías de Tolosa, instalado holgada y convenientemente en el palacio de los Sres. Marqueses de Vargas y en el de la antigua Diputacion foral de Guipúzcoa.

De una manera positiva, por lo sólido y beneficioso de las enseñanzas allí organizadas, y no á virtud de propagandas aparatosas ó con las invenciones de una novedad aparente, háse granjeado aquel establecimiento el favor de las gentes en tal medida, que solo los alum-

(1) Borchazkoa=Impetuoso.—(2) Egoitza=Morada, mansion.